

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

[www.ehu.es/
azpidazki](http://www.ehu.es/azpidazki)



EHUREKA AHOLKUAK

35

EUSKARAREN KALITATEA (II)





EGOKITASUNA LEHENETSIZ

Orain arte zuzentasunari eman zaio lehentasuna eta, hurrena, jatortasunari.

Horrela, konplexuz bete ditugu hiztun egoki asko. Egokitasunak balio beharko luke konplexu horiek gainditzen joateko.





EGOKITASUNA LEHENETSIZ

Zuzentasunaren eta jatortasunaren aldean, egokitasuna kontzeptu aldakorra da.



Komunikazio egoera bakoitzak bere egokitasuna du. Hitzun egokiak, beraz, aldian-aldian egoera bakoitzean egokia den hizkera mota erabakitzen jakin behar du.



EGOKITASUNA LEHENETSIZ

Egokitasunean, beraz, hainbat faktorek eragiten dute. Eta horiek guztiak hizkuntzaz kanpokoak dira:

- Helburua zein da?
- Entzuleak edo jasotzaileak
- Hiztunaren gaitasuna
- Mezua zabaltzeko bidea(k)

Beraz, faktore horien arabera, neurtuko da testu (edo ahozko jarduera) egokia den ala ez.

